BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2018/02/06

# Bizkaiko Batzar Nagusietako Gizarte Ekintzako Batzordeak umeen eta gazteen gaineko politiken inguruko Lan Taldea sortu dau

Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez onetsi dabe gaur goizean gizarte ekintzako arloan umeen eta gazteen gaineko politiken inguruan Lan Taldea sortzea. Saio berean ez da onetsi Umeen eta Nerabeen Babes Sistemaren gaineko ebaluazinoa urte honetako lehenengo hiruhilekoan egiteko Podemos Bizkaia taldeak aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamena.

Lehenengo puntuari jagokonez, berba egiteko euren txandatan talde guztiak bat etorri dira "zaurgarritasun egoeran dagon kolektibo baterako garrantzi berezia daukien egoeratan" adostasuna lortzeak dauen garrantziaz, eta gai hori lantzeko orduan "kontu" handia izan behar dala azpimarratu dabe. Horrez gain, adierazo dabenez, gizartean sentsibilizazino handia daben holangoa moduko arazoek gogoetarako leku konpartituak behar ditue. Bozketea bukatu danean, Ana Esther Furundarena Gizarte Ekintzako Batzordeko Presidenteak euren berbak eskertu deutseez talde guztiei, eta akordioa Bozeroaleen Batzarrera bideratuko dala jakinarazo dau, bertan berresteko.

Arlo horretan bertan, Batzordeak ez dau onetsi Umeen eta Nerabeen Babes Sistemaren gaineko ebaluazinoa 2018. urteko lehenengo hiruhilekoan egiteko Podemos Bizkaia taldeak aurkeztu dauen proposamena. Podemos Bizkaia taldearen ekimena, kolektibo hori, "eskubide subjektua dan eta, aldi berean, arrisku egoerak emoten diranean zaurgarri izan daiteken" sektorea dala ulertzean justifiketan zan. Talde Mistoa, Talde Popularra eta EH Bildu proposamenaren alde agertu dira, benetako datuak eukitea komenigarria dala esanez. Foru Gobernua eusten daben taldeek, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak, barriz, kontrako botoa emon dabe, Arauz Besteko Proposamenean eskatzen zan ebaluazinoa, Bizkaiko Foru Aldundiak 2008 – 2011 epealdirako bere egunean aurrera eroan eban Umeen bigarren Plana amaitzean daborduko egin eban gauza bera dala ulertuta.

URRITASUNA DABEN PERTSONEN BIZITZA KALIDADEA

Eguneko gai zerrendea Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako Diputatu andrearen agerraldiagaz amaitu da, Podemos Bizkaia taldeak eskatuta, egungo egoeraren eta Urritasuna daben Pertsonen Partaidetzarako eta Bizitza Kalidaderako 2016-2019 Planaren helburu estrategikoen jarduketako lehentasunezko ildoen garapenaren gaineko datuak emoteko. Zifra ofizialek erakusten dabenez, kolektibo horrek 90.000 pertsona batzen ditu Bizkaian, eta horreen artetik 65.000k %33ko edo hortik gorako urritasuna erakusten dabe.

Aldundiko arduradunak Planean jasoten diran neurrien azalpen zehatza emon dau, eta Planak "helburuak lortu dituala" adierazo dau. Gainera, une honetan programea martxan dagola esan dau, eta, hori dala eta, oraindino ezin dala bere emaitzen balorazino formalik egin. Eta, "Aldundiaren eta hirugarren sektoreko erakundeen arteko alkarlanerako benetako beharra aurrera eroateak" eskatzen dauen "erronkea" azpimarratu dau.

NOTA DE PRENSA
06/02/18

# La Comisión de Acción Social de las Juntas Generales de Bizkaia crea un Grupo de Trabajo sobre políticas infantil y juvenil

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado esta mañana por unanimidad la creación de un Grupo de Trabajo sobre políticas infantil y juvenil en el ámbito de la acción social. En la misma sesión se ha rechazado una iniciativa de Podemos Bizkaia para llevar a cabo una evaluación del Sistema de Protección a la Infancia y Adolescencia en el primer trimestre de este año.

Respecto al primer punto, en sus turnos de palabra todos los grupos han estado de acuerdo en la importancia de alcanzar un consenso en “situaciones de especial relevancia para un colectivo vulnerable”, y han subrayado la “delicadeza” que requiere el tratamiento de esta cuestión, además de considerar que problemáticas de alta sensibilidad social como ésta requieren espacios de reflexión compartidos. A la conclusión de la votación, la Presidenta de la Comisión de Acción Social, Ana Esther Furundarena, ha agradecido sus palabras a todos los grupos junteros y ha informado de que el acuerdo será trasladado a la Junta de Portavoces para su ratificación.

En este mismo ámbito, la Comisión ha rechazado una propuesta de Podemos Bizkaia que instaba a realizar una evaluación del Sistema de Protección a la Infancia y Adolescencia en el primer trimestre del año 2018. La iniciativa de Podemos Bizkaia se justificaba en la consideración de este colectivo como un sector “que es sujeto de derechos, a la vez que puede ser vulnerable cuando concurren situaciones de riesgo”. Grupo Mixto, Grupo Popular y EH Bildu han apoyado la iniciativa, argumentando la conveniencia de disponer de datos reales. Por el contrario, los grupos que apoyan al Gobierno Foral, Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, han votado en contra por entender que la evaluación solicitada en el Proposición No de Norma de Podemos es una labor que ya se realizó al concluir el segundo Plan de Infancia, elaborado en su día por la Diputación Foral de Bizkaia para el periodo 2008 – 2011.

CALIDAD DE VIDA DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD

El orden del día se ha completado con una comparecencia de la Diputada Foral de Acción Social, Isabel Sánchez-Robles, a petición de Podemos Bizkaia, para explicar la situación actual y desarrollo de los objetivos estratégicos y líneas prioritarias de actuación del Plan para la Participación y Calidad de Vida de las Personas con Discapacidad 2016-2019. Según cifras oficiales, este colectivo agrupa en Bizkaia a 90.000 personas, de las que 65.000 presentan una discapacidad igual o superior al 33%.

La responsable foral ha ofrecido una detallada explicación de las medidas incluidas en el Plan y ha asegurado que éste “alcanzará sus objetivos”. Asimismo, ha señalado que el programa está actualmente en marcha y, por lo tanto, no se puede realizar una valoración formal de sus resultados por el momento. Y ha recalcado, asimismo, el “reto” que supone “llevar a cabo un trabajo genuino de colaboración entre la Diputación y las entidades del tercer sector”.